



gurasoen txokoa **GURASOAK IRAKASLE**

erreportaia **IKASLE OHIAK: IRAGANA ETA ETORKIZUNA**

ikasleen txokoa **SARI BERRIAK**



jakintzaikastola

agenda

APIRILA

LEHEN HEZKUNTZA

2. maila: Pagosara irteera ogia ekoizteko prozesua ikustera.

5. maila: "Osasuntsu elikatuz" ekitaldia Donostiako Kursalean.

DBH:

4. maila: Mihiluze saiora bisita.

MAIATZA

HAUR HEZKUNTZA:

Maila guztietan: Gurasoentzat jaialdia..

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Irungo Oiassora irteera erromatarren garaiko museoa ikustera. Ikastola inguruko landareen behaketa Ordiziako zenbait parketan.

2. maila: irratsaioaren grabaketa eta emanaldia.

5. maila eta 6. maila: Bertso jaialdia.

5. maila eta 6. maila: Ikasturte amaierako irteera Zuhazara.

DBH:

3. maila: Homosexualitateaz hitzaldia.

4. maila: Kosmodisea sari banaketa Kursalen.

DBH osoa: Agenda 21eko Foroa.

4. maila: "Bizitza bat salbatu" saioa. (Oinarritzko sorospena)

3. eta 4. mailak: Poiropo lehiaketa eta sari banaketa.

EKAINA

HAUR HEZKUNTZA

2 urtekoak: Baliarrainera irteera.

3, 4 eta 5 urtekoak: Hondarribiara irteera.

Denontzat: Ikastolaren eguna.

LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. mailak: Ikasturte amaierako irteera Legazpiko Mirandaolara.

3. maila eta 4. maila: Ikasturte amaierako irteera Sastarrainera.

Denontzat: Ikastolaren eguna.

DBH:

1. maila: Villanañera irteera hiru egunetarako.

2. maila: Otsagabira irteera hiru egunetarako.

4. maila: Saloura irteera aste osorako.

DBH osoa: Ikastolaren Eguna.

4. maila: Homosexualitateaz hitzaldia.

Denontzat: Ikastolaren eguna.

BATXILERGOA:

Denontzat: Ikastolaren eguna.

Mila aukera

Bukatu da bukatu da, bukatu da akabo... kantu kantari irten dira Jakintza ikastolako ikasleak Irailan hasitakoari amaiera eman diote ekainaren 17an. Tartean auskalo zenbat bilera, elkarrizketa, azterketa, kirol, jolas, abesti, antzerki... etab.

Aurrez, ekainaren 6an, ospatu genuen Ikastolaren eguna. Oso polita irten zen, benetan atsegina, gure komunitateko kideak horrela elkartu eta horrelako giroan jardutea. Izan ere, garrantzitsua izanik bakoitzaren eginkizunak ondo betetzea, nola ez elkarrekin ondo pasatzen jakitea. Majo saiatu ziren guraso, ikasle eta irakasleak txingan, sokatiran edo uzta jokuetan...

Ekaineko helmugara iritsi garen honetan, beste aukera batzuk ditugu aurrean. Aukera anitzak, ezberdinak, bakoitzak aukeratu beharrekoak. Zerrenda luzea eta zabala. Asko izango dira, eguzki goseaz, hondartzara bidean. Batzuk bai, Larraitzen pagoen itzalean. Dezente, bidegorrian oinez edo txirinduan. Bakarren bat Txindokiko maldan gora...

Kultur jarduerak eta herrietako festak ere ugari izango dira. Halere ez ahaztu, hiper aktibitatea ez dela onena eta gorputzari eta buruari atseden ematea osasungarri dela.

Izan zoriontsu!

Acabamos de bajar la persiana a un nuevo curso que lo comenzamos allá por el mes de septiem-bre. En el camino hemos dejado innumerables actividades que unas veces nos han aportado fatigas y quebraderos de cabeza y otras mu-chas, alegría, juegos y diversión.

Un ejemplo claro de todo esto último lo encontramos en la bonita fiesta de despedida que celebramos conjuntamente padres, profesores y alumnos el pasado día seis.

Ahora se nos abren las puertas a nuevas posibilidades de ocio y descanso; pero no olvidemos que todo ello será para bien si volvemos carga-dos de fuerza e ilusión. Suerte

Batxi 2ko ikasleak



Atzean: Estizen Agirresarobe, Laura Merino, Karen Abeledo, Arantzazu Otegi, Itsaso Rodriguez, Jon Itsautsi, Eneko Martos, Asier Otegi eta Xabier Izagire.

Aurrean: Maddi Otamendi, Oihane Bidegain, Maite Mendia, Ana Etxarri, Oroitz Rey, Joseba Albisu eta XabierZabala.



Goian: Mikel Urretagoiena

Behean: Ainhoa Mujika, Ane Ormazabal, Miren Eskisabel, Idoia Lizarraga, Iñaki Esnal, Amaia Etxeberria eta Miren Andueza.

Irailan noiz?

Kostata baina aurten ere iritsi dira udako oporrak. Orain luzeak diruditen arren... iritsiko da iraila. Ondorengo taulan daukazue etapa bakoitza noiz hasiko den irailan.

Etapa	Datak	Orduetgia
Haur Hezkuntza	Irailaren 7tik-25ra	Goizeko 9:00etatik 12:30era
	Irailaren 28tik aurrera	Goiz eta arratsaldez
Lehen Hezkuntza	Irailaren 7tik-25ra	Goizeko 9:00etatik 12:30era
	Irailaren 28tik aurrera	Goiz eta arratsaldez
DBH	Irailaren 4ean aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 7tik-25ra	Goizeko 8:30etatik 14:30etara
	Irailaren 28tik aurrera	Goiz eta arratsaldez
DBHO	Irailaren 10ean aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 11tik aurrera	Orduetegi arrunta

Lan berriak, sari berriak Ongi etorri guztiak

Egindako lanak berez du balioa. Horrez gain, lan horiek direla eta sariak jasotzen badira, hau da, berezko balioari kanpoko begiraleek emandako errekonozimendua gaineratzen bazaio, ikasleentzat eta eurekin ari diren ira-ikasleentzat horrek guztiak balio eran-tsia du.

Iaz DBH 2B taldeak Abelino Barriola saria eskuratu zuen eta horren aipamena egin genuen Jakintzazu aldikarian. Aurten, berriz, DBH 1A taldeak irabazi du D ereduaren artean, beste bi ikastetxeekin batera. Era berean, DBH 1B finalera heldu da.

Ikasturte honetako lehen hiruhilekoan, lantzen ari ginen unitatearen barnean, irakurketa ozena eta esanguratsua nola egin aztertu genuen: intonazioa, el-karketa fonetikoak.... Gero, Eusko Jaurlaritzatik bidalitako testuak eta geuk espresuki horretarako hautatutakoak ahalik eta ongien prestatu ondoren, CD batean grabatu eta Eusko Jaurlaritzara igorri genuen.

Irabazleek, hau da, DBH 1A taldekoek, sari mamitsua jasoko dute: lau eguneko egonaldia oraindik zehaztu gabeko aterpetxe batean, dena doan noski. Bestalde, Jakintzako irakasle batek ere aukera izango du irailaren lehen hamar egunetan zehar Andaluzia eta Portugal inguruan bidaia ederra egiteko.



Beñat Irastorza



Horretaz gain, DBH 4ko Beñat Irastorza ikasleak Urruzuno Idazketa Lehiaketa entzutetsua irabazi du. Lehen ere bereganatu izan ditu Jakintzak Urruzuno lehiaketa batzuk. Beraz, poztekoa da; izan ere, lehiaketa hori egun idazketa alorrean indarrean den saririk entzutetsuenetakoa da. Sari modura, aurrez irakaslearentzat aipatutako sari bera izango du Beñatek eta bere gastuetarako 300 €-ko dirusari jasoko du.

Noski, Beñat oso pozik dago ia ezustean lortutako sariarekin. Izan ere, lehen aldi aurkeztu eta saria bereganatzea ez du edonork egiten. Hauxe dio berak: "Presaka egin nuen eta azken emaitzarekin ez nintzen oso gustura geratu. Beraz, ez nuen saririk espero. Gertatu dena ikusita, datorenerako aurrez egingo ditut etxekolanak".

Zorionak guztioi eta goza deza-zuela merezi bezala.

¡Cuando el reconocimiento a un trabajo que creemos bien hecho nos llega desde fuera, todavía es mayor nuestra satisfacción. Es por todo ello por lo que no podemos dejar de mencionar y sentirnos orgullosos de nuestros dos últimos logros.

Por un lado, el grupo de DBH 1A ha sido galardonado en el certamen Abelino Barriola y por ello recibirá como premio una estancia de cuatro días en un centro de ocio.

En otro aspecto, y esta vez a nivel individual, el alumno de DBH 4 Beñat Irastorza (la primera vez que se presentaba) ha resultado ganador del premio Urruzuno; consiguiendo con ello un viaje de diez días de duración en Andalucía y Portugal.

¡ÁNIMO Y ENHORABUENA A TODOS! os lo merecéis.

Egunero gauza berriak ikasten

Laugarren urtez jarraian, euskararen ezagutza sakontzen eta hobetzen ahalegindu gara ikastolako irakasle eta ez irakasle guztiak. AEKren ardurapean, aurreko urteetan bezala, on-line, moodle plataforma erabiliz egindako ikastaroa izan da.

Bestalde, Ikastolen Jardunaldi Pedagogikoak burutu ziren martxoan Konpetentzietan Oinarritutako Curriculumaren inguruan. Bertan izan zen Jakintzako irakasleak.

Beste ikastaro ugari ere egin dira eta hauen artean aipa ditzakegu **Bizikidetzari** buruzkoak, **Urtxintxa**, **Txanela**, eta **Ostadarri** buruzko ikastaroak.

Por cuarto año consecutivo, todos los alumnos y profesores de la ikastola Jakintza nos hemos esforzado en el conocimiento y perfeccionamiento del euskerta.

Bajo la dirección de AEK, al igual que los años anteriores, ha sido un curso en que se ha utilizado la plataforma moodle, on-line.

Por otra parte, se llevaron a cabo unas Jornadas Pedagógicas dedicadas al Curriculum de las Competencias que ya se están aplicando en la enseñanza.

También se llevaron a cabo otros cursos, entre los que podríamos destacar los dedicados a la Convivencia, Urtxintxa, Txanela y Ostadarri.

Jakintzako ikasle ohiak

“...sormena eta subjelibotanuna landuko nituzke, garai horretan”

Beti izan ohi da interesgarria Jakintzatik pasatako ikasleak zermolako bizibidea daramaten jakitea, nola gogoratzen duten hemengo bolada.

Horretarako ez dugu eurei galdetzea baino bide egokiagorik aurkitu. Xabier Arañarekin (arkitekturea ikaslea), eta Eneritz Zabaletarekin, filosofia ikaslea, hasiko gara.

Ikasten jarraitzen duzue, eta ez dakit “ikasle ohi” izenik onartuko duzuen, baina Jakintza ikastolarekiko horrela zaretenez... nola gogoratzen duzu ikastolako pasadizoaz?

Xabier: Uste dut ezin dugula gure ikastolarekiko lotura ezeztatu, ezta behar ere. Azken finean, gure bizitzaren zati garrantzitsu baten eszenatoki dugu hura: Eragina izan du geuregan ere, gure ohituretan, gauzak egiteko eta pentsatzeko eran... eta zer esanik ez, baita gure izaerarengan ere. Nire ikastolako urteak ibilbide arin eta atsegin bezala oroitzen ditut, aldian aldiko estutzeak izan banituen ere. Eskala oso txikiko zerbait bezala ikusten dut orain, ukimen xamurrekoa, non harremanak oso bero eta gizatiarrak ziren.



Xabier Araña

Eneritz: Nostalgia apur batekin oroitzen naiz Jakintzako pasadizoaz. Momentu txarrak egon zirenen arren onekin bakarrik garatzen naiz, horiek niregan eragin gehiago izan zutelako, besteei esker asko ikasi banuen ere.

Ikasleek ez dute beti ikastolako ibilbidea ondorengo ikasketen (edo lanaren) aurreko prestakuntza gisa hartzen. Zuek zer diozue?

X. A.: Orokorrean, prestakuntza nahiko baliagarria suertatu zaidala esango nuke. Ikastolan, eta nik hautatutako bide zientifikoan batik bat, gauzen alde tekniko eta arrazoiarengatik izugarri, eta ondo, lantzen dira. Halere, eta hautatu ditudan arkitekturako ikasketekin lotuta, esan beharra dago gauzen alde zientifiko eta arrazionalaz bestalde dagoen mundu irrazionalean, sormenarekin eta subjelibotasunarekin lotuan, huts sakonak nabaritu ditudala. Agian, egungo hezkuntza sistemaren gabezia orokor bat izan dai-



teke, edota nire karrera bera, konkretuki, logikoagoa litzateke beste ikasketa bide batzuetara egokitzea. Egia esan, nik aukeratutako bidea guztietan zientifikoena da, hori ere esan beharko nuke...

E. Z.: Nik uste dut, bertan ikasten edo lantzen diren gai askok, agian, ez dutela ondorengo ikasketarako balio. Hori baina garrantzitsuagoa den zerbaiterako balio dute, ordea, “*kultura orokor*” bat lortzeko. Orduan horretaz ez ohar-tu arren, ondoren, pertsona desberdinekiko harremanetan, horrek askeago egiten zaitu, autonomoago.

Ondoren hartutako ikasketa-bidea uste gabeko saltoa gertatu al zitzaizun?

X. A.: Guztiontzat bezala, niretzat ere erronka garrantzitsu bat suposatu zuen unibertsitateak: jende ezezaguna, leku berria, gauzak egiteko modu desberdinak... Are gehiago, edukiak eta gaiak zeharo desberdinak suertatu ziren niretzat: ez nuen sekula gauzen diseinuaren inguruko ariketa sakonik egin, nire karrera-kideen antzera. Edonola ere, beste gai batzuetan, fisikan, matematikan edota marrazketan esaterako, aise asko moldatu nintzen.

E. Z.: Bai. Planteamendua guztiz desberdina da. Hasieran ez dakizu nondik zabiltzan, ezta norengana jo ere. Nire fakultatean behintzat bakoitza bere airera doa eta ez dugu ez tutore ez inor zalantzak argitzeko. Askeago zara, baina aldi berean galduta sentitzen zara. Ez duzu inor zure atzetik; azkenean lanak pilatu egiten dira eta egiten ari zarenaz disfrutatuta behar erreta bukatzen duzu. Zerbait ikasi nahi baduzu zure zure aldetik egin beharko duzu. Egia da laguntzeko irakasleak badaudela, beraien bulegoetara joaten bazara eta interesa erakusten baduzu, ez dizuete (orokorrean behintzat) atea muturrean itxiki, baina ondorioa argia da: beti ere zuk egiten baduzu, zu atzetik zabiltzan.

Zertan oinarrituko zenuke salto horren zergatia?

X. A.: Hezkuntza sistema eta ikaste modalitateen eta karreren arteko *logikaren gabezia*, nolabait esateko. Gauzatzen ari ditudan arkitektura ikasketak beste batxilergo mota bati bideratuko nituzke, ez kalkulu zehatzetan oinarrituriko batxilergo zientifiko-tekniko baten luzapen moduan planteatuta. Bestalde, salto hori aintzen lagundu egiten du teknologia berrien erabilpenak: guztiz baliagarria da.

E. Z.: Askatasunean, aurrez aipatu dudanez. Halere, askatasun horrek kanpotik politagoa dirudi errealitatean dena baino..

Egindako aukera ongi informatuta aukeratu al zenuten?

X. A.: Egia da orokorrean ikastolak berak ongi azaltzen dituela bide bat edo beste aukeratzearen ondorioak, baina karreren kasuan oso zaila da ikasleari informazio osatu bat ematea. Zailtasun horretatik abiatuta, bide berriari ezjakintasun nabariarekin ekin nion, baina ez informazio gutxi nuelako, baizik bertan izan arte karreraren erabateko ikuspegi osatua izatea.

E. Z.: Ba egia esan... ez. Gauza desberdin asko gustatzen zitzaizkidan eta ez nekien nondik jo. Arte ederrak egin nahi nuen, baina fakultatea bisitatu ostean.... Filosofia fakultateatik inpresio onez irten nintzen azkenean bertan amaitu nuen.

Ikastolako gaintitu ondoren topatu dituzun zailtasunak gaintitzeko baliagarri izan al zitzaizkizue ikastolan landutako estrategiak?

X. A.: Ikastolatik mentalki ondo prestatuta ateratzen gara. Erreakzionatzera eta geure buruan sinisterra bultzatzen gintuzten askotan, eta hori oso baliotsua dela uste dut, baita bizitzari begira ere. Ikasketa prozesuaren optimizazioa ere sarritan landu genuen

“...kritikoak eta autonomoak izaten ikasi behar dute ikasleek”

bere garaian, eta nahigabe ere beti geratzen zaizkizu ohitura sanoak eta gauzak egiteko modu egokiak.



Eneritz Zabaleta

E. Z.: Estrategia diozunean ez dut oso argi zeri egiten diozun erreferentzia, baina arazoei aurre egiteko irtenbiderik egokiena lan egitea da. Ez pentsa inork zuregatik egingo duenik eta ikastolako garaian bidaltzen dituzten lanak esan da bezala (gure “etxeko lanak”) egiten badiituzu ohitura onak hartuko dituzu eta hori aurrera begira ongi etorriko zaizu.

Teknologia berriak erabiltzen jakitea ere garrantzitsua da. Esan liteke atal horiek ikastolan lantzen direla eta oso garrantzitsua da besteen aurrean hitz egiten jakitea.

Oraingo eskarmentua edukita, aholkurik sortzen al zaizu hemengo irakasleentzat?

X. A.: Zinez, gurekin lan bikaina egin zutela esango nieke, euren aldetik gauza gutxi ikusten ditut hobetzekoak. Eguneroko lanaren garrantzia berretsi nahi nuke eta filosofoa hori bukararaino eustera bultzatu, edukien asimilazio eta lekutzerako funtsezkoa kontsideratzen baitut. Horretan iaioak dira ikastolan. Aldiz, teknologia berriak erabiltzera ere animatuko nituzke batzuk, lorturiko emaitzak direnak direla ere, guretzat oso eskertzekoak baitira, eta baliagarriak.

E. Z.: Ni izan nintzen eta naizen ikasle alper eta kaskagogor modura, hau esateko, agian, egokiena izan ez arren, gogor egiteko. Filosofiako ikaslea naizenez, garrantzitsua iruditzen zait kritikoak izaten erakustea, lan bat egiten dutenean, kopi pega bat baino zerbait gehiago exijitu. Informazioa bila dezaten, kontrajari eta ondorioak atera, horrela beraien iritzia propioa izaten ikasiko baitute eta pentsatzen.

...eta ikasleentzat?

X. A.: Ikasleei eure ikasketetan sinetsi dezatela esango nieke, eta garai bateko haziak bere fruitua ematen duela ondoren, zalantzarik gabe. Ikastolan lantzen diren edukiak modu egokian

asimilatzeak berebiziko garrantzia du etorkizunerako, bai karrerarako eta baita bizitzarako ere. Batek daki noiz, baina guztia gerta daiteke baliagarria.

E. Z.: Kostatzen den arren momentua aprobetxatzeko. Ustez garrantzirik ez duten asignatura horiei xarma aurkitu eta hauen inguruan al duzuen guztia ikasteko. Jarduteko ohitura hartzeko, kritikoak eta autonomoak izaten ikasteko aukera duzuen heinean. Batzuetan denbora galtzen ari zarete irudituko zaizue, baina zozoei begira galtzen da denbora gehien. Bizi honetan dituzuen helburuak ez badaude jakintzari lotuak (denbora galtzea bat iruditzen zaizulako) plazer material eta lurtarrei soilik loturik badaude, ezeren inguruan interesik ez baduzu, agian lan egin beharko zenuke (ikaskeztez gain), zein ongi bizi zaren oharrezko. Zure ikasketak zuek ordainduko bazenite gehiago baloratzeaz gain probetxu gehiago aterako zenioke. Eta bide batez asko dakien jendea entzutea gomen datzen dizut, jakitea zein interesgarria den ohar zaitezten.



Ah, eta inglesa! hori bai dela beharrezkoa.

Duela urte batzuk hemengo amaitu, eta oraindik ikasle... Askoen ustez egoerarik gustagarriena, ikaslearena omen. Zuek zer diozue? Amaitzeak penik emango al dizue?

X. A.: Ja, ja, ja, ja...! Izango nuke zer esan esames horren asmatzaileari...! Beno, txantxak txantxa, esango nuke ikasle egoerak bere abantaila eta desabantailak dituela. Alde batetik, gogorra gertatzen dira gauzak egin eta ikasteko epeak: ikastearen ekintza bera atsegina izan bada ere (gustoko dituzun ikasketetan zabilta-

nean batez ere), ikasketa horri ezartzen zaizkion epeak gogorregiak suertatzen zaizkigu batzuetan, ikastearen ekintza bera narrastuz. Baina jakin behar da presio hortaz haratago begiratzen eta ikasitakoaren edertasunaz jabetzen. Bestetik, ikasleak duen berebiziko erantzunkizunen gabezia oso lasaigarria da, eta ikasketak jolas edo esperimendazio bideak ahalbidetzen dituela ikustea, estipulatzen dizkigutenetik haratago. Alde horretatik, errespetuz begiratzen diot nik lanari. Edonola ere, energiaren eta gogoz ekingo zaio bere garaian horri ere (ikasketaren jarraipen bat baita, bestalde).

E. Z.: Ikasle bizia ona da azterketetan ez zaudenean edo lanez lepo ez zaudenean... niri ikasketak amaitzeak pena emango dit, zalantzarik gabe, baina ez ikasle bizi onena delako, lanean zaudenean egin ezin ditzakezun beste zenbait gauza egin ditzakezulako baizik. Jende desberdinarekin erlazionatzeko aukera, bizi mota desberdina izan dutenekin, asko dakien jendearekin... eta horrek pertsonalki asko aporteratzen didalako.

Nik asteburuetan lan egiten dut, udan ia eguneroko ere egin izan dut. Egia da, lanak nekatu egiten du, baina ikasketak ere bai, eh. Ezin dezakegu horrelako baieztapen orokor bat egin, ikasketa guztiak ez baitira berdinak ezta lan guztiak ere.

Ea, bada, dena nahi duzun moduan ateratzen zaizuen... eta eskemik asko.

Biak: Eskerrik asko zuei, lasai hitz egiteko aukera eman duguzuelako!

“...nola ahaztu garai hartako giroa!”

Kepa Gaztañaga (Orkliko ingeniaria)
Miren Estensoro (Goierriko Garapen Agentzian) eta **Leire Arandia** (D'elika-tuz Zentroko zuzendaria).

Orain bizibidetzat duzun lanak ez dakit atzera begiratzeko astirik ematen dizun, baina hala balitz, Jakintzako ikasle ohia zarenez, esango al diguzu nola gogoratzen duzun ikas-tolako pasadizoak?

Kepa: Oroitzapenak oso onak dira; noski ez dute ikasketa edo azterketekin zerikusi handirik; gehienbat gelan geneukan giroa zen onena.



Kepa Gaztañaga

Miren: Noski dudala atzera begiratzeko astial! Goiekin, ari naiz lanean, ikastolatik gertu, eta hango pasadizoak, batez ere, azken urteetakoak askotan gogoratzen ditut, bai. Orokorrean, oroitzapen oso ona daukat, batez ere, batxilergoan sorturiko taldearekin eta irakasle batzuekin izandako harremanagatik.

Leire: Oroitzapenak oso onak dira. Hiru urtetatik hemezortzira bertan ibili nintzen. Gainera BUP eta COU ikastolan ikasitako lehen taldean egoteko ohorea izan nuen eta esperientzia hura ere oso polita izan zen, talde oso majoa osatu baikeuen.

Ikastolan saiatuko zitzaizun denak, etorkizuna txukun eta oparo azaltzen. Ordukoak ba al oihartzunik orain bizi duzun egoeran?

K. G.: Noski, batez ere COU-n geundenean irakasleak laguntza ona ziren zer norabide hartu behar genuen erabakitzeke garaian. Hala ere nik nahiko argi neukan zer zer ikasi eta zein arlotan lan egin nahi nuen, beraz ez nuen laguntza handirik behar izan.

M. E.: Askotan saiatzen ziren irakasleak gu zuzentzen, gehiegitan agian (ja, ja!) baina nire kasuan, aholku onak eman zizkidaten etorkizunari begira. Ikastolan gomendaturiko bidea jarraitu nuen gehienean. Nire kasuan, bide hori berriro ere errepikatuko nuke aukera izango banu.



Leire Arandia

L. A.: Askotan ondoren baloratzen dira aurrez entzun eta ikasitako hainbat gauza. Nik uste dut ikastolan saiatu zirela gu, biderik egokienera bideratzen. Azkenean bakoitzak hartzen ditu bere erabakiak baino asko laguntzen du aholkularitza hori izateak.

Saso hartakoa, ordea, ez zen ikasketara soilik lotuko. Badira lotura sentimentalak, emozionalak... ba al duzue gordetzeko moduko oroitzape-nik, oraindik ere emozionatzen zaituenik?

K. G.: Puuff. Bat bakarrik aipatzea zaila da. Ikasbidaia edo itereak politik ziren, Zuazara joaten ginenean ikaragarri ondo pasatzen genuen gainera barrakoi antzekoetan lo egiten genuen eta giro polita izaten zen....

M. E.: Ez daukat oroitzapen zehatzik baina hiru egunetako bidaien aurretiko urduritasun eta prestaketak (urtebeterako gindoazela zirudien!), ikasle bidaiak, klase eta klase artean pasilloetako zalaparta, etab.

L. E.: Ikastolaren 40. urteurrenean afarira elkartu ginenean sentimendu eta emozio ugari azaleratu ziren: aspaldian ikusi gabeko irakasleekin eta ikaskideekin berriro elkartzea... Oroitzapen zehatzetara joz, “kilometroak”-en anto-lakuntza eta prestaketan partaidetza, Parisera ikasbidaia... asko dira, asko.

Normala, da hemengo sasoia amaitutakoan, bakoitzak bere bizimodua eramatea. Orduko lagunekin izaten al duzu harremanik?

K. G.: Egia esan, eta zoritxarrez, gehienekin ez dut harreman handirik mantentzen. Nahiz eta Ordizian bizi eta lan egin, ez naiz bertan gehiegi egoten azkenaldian. Gehienbat kuadrilako ikaskideekin daukat harremana. Denekin kontaktuan jarraitzea, ordea, zailagoa egiten da.

M. E.: Nahiz eta urte hauetan jende asko ezagutu, ikastolako lagunak betikoak dira eta harreman estua mantentzen dut eurekin. Bestela, beste askorekin noizean behingoa bakarrik.

L. A.: Koadrilakoekin noski, eta bestela ikaslide izandakoekin, Ordizian bizitzen jarraitzen dugunok batzuekin besteekin baino gehiago,

ikastolaz kanpo arrazoi batengatik harremana izaten jarraitu dugulako.

Eta irakasleekin? Heldutasunak eman ohi duen baretasuna tarteko, ba al dute irakasleek tokirik zuren oroitzapenetan?

K. G.: Noski, baita eskolaurrekoek ere. Ez nuen inungo irakasleekin arazorik, beraz oroitzapen oso onak ditut. Harreman irekia zen; adinean gorago eta harremana sakongoa.

M. E.: Noski denekin ez nuen harreman bera izan. Halere, batzuk dezente gogoratzen ditut. Lurdes eta Anamari, nire lehenengo andereñoak ez ditut sekula ahaztuko. Gero, azken urteetakoak dira gehien gogoratzen di-tuzunak.

L. A.: Bai, oroitzapen onak ditut. Oraindik ere ilusioa egiten dit pentsatzeak datorren urtean nire irakasle izandako batzuk nire alabaren irakasle izango direla. Gustora agurtzen ditut kalean edo beste nonbaiten haiekin topo egiten dudanean.

Ikasle garaian lanaren ametsetan urtu izan dira zorabio gehienak. Orain, ordea, lanean ari zara. Mirarik sentitzen al duzu garai haietaz?

K. G.: Ez gehiegi. Agian gertuen ditugunak unibertsitateakoak direlako, eta garai hoietan azterketa garaia nahiko gogorak izaten zirelako. Beste gauza bat da ikastolan genuen giroa: hori lan munduan izatea zailagoa da eta ikasgelako giro hori pixka bat faltan botatzen da.



Miren Estensoro

M. E.: Beno, egia esan, ez diot ikasteari utzi eta printzipioz, ezta asmorik ere. Nostalgia ez; ikastola garaiko oroitzapen ona daukat baina lanean ere oso ondo bizi gera, eta ez dut uste ikasle garaian hobeto bizi ginenik.

L. A.: Beti dago nostalgia puntu hori. Batez ere lagunak elkartu eta garai haietako kontuez oroitzen hasten garenean. Baina orain beste gauza batzuk bizi izatea tokatzen da.

Momentu batez gaztaroa bisitatzea atsegina izango zitzaizulakoan, eta gurekin partekatzeagatik, mila esker. Izan ongi.

Hirurak: Eskerrak zuei. Besarkada bat eta eskuminak batez ere nire irakasle ohiei.

“...hau aldea dagoena gure garaiko eta oraingo ikasketen artean!”

Ane Hernandez Urretxu-Zumarraga Ikastolan ari da lanean, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehenengo mailan, 3-4 urteko haurrekin.

Zu ere Jakintza ikastolako ikasle ohia izan arren, badakigu hezkuntza mundua ezin duzula saihestu, irakasle atzeman baitzaitugu.

Ikasleen emozio-egoera, gehienetan, asegabearena eta ezinegona izaten omen da. Zure irakasle izateko erabakian, -gaztaroko oroitzenak (gaztetako zenbait mamu uxatzearen edo...) izan al zuten pisurik?

Nire kasuan, betidanik argi izan dut irakasle izan nahi nuela, txiki-txikitatik, bokazioa izan da.

Irakasle batentzat ikasle garaiko oroitzenak bereziak al dira?

Ikasle garaiko oroitzenak jende guztiarentzat bereziak direla uste dut, edozein lanetan lan eginda ere.

Nola ekiditen duzu ikasle baten protesten aurrean orduko zure protestak ez gogoratzea?

Ikasleen protesten aurrean, ahal dudan justuena izaten saiatzen

naiz, ala ere nik lan egiten dudan haurrek, askotan “kasketak” harrapatzen dituzte eta hauen aurrean askotan kasurik ez egitea izaten da hoberen hau pasa arte.



Ane Hernandez

Ikasleak beti (edo gehienetan) dauka arrazoi duenaren ustea. Bi aldetakoa egoera eta jardunak eza gutzen dituzenez, non kokatzen zara gehiagotan (badakit ez dagoela jeneralizatzerik), ikaslearen edo zeure alde?

Askotan tratuak egin behar dira ikasleekin biak irabazi dezagun.

Aldaketarik antzematen al duzu zure gazteagoko garaitik hona (aldaketa akademikoak, ikaslerian, gurasoenean, irakaslerian...)?

Aldaketa asko eman dira, adibidez, nire garaian 1. mailatik 8. mailara egiten genuen eta ondoren BBB eta UBI, gaur, lehenengo hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilergoa direnak. Aldaketa asko eman dira eta oraindik ere gehiago emango dira.

Aldaketak onerako izango dira, jakina.

Zenbait aldaketa onak dira, noski, nire gelako haurrak, adibidez, ordenagailua dute gelan bertan, eta egunero erabiltzen dute. Ingelera ere 4 urterekin ikasten hasten dira, guk aldiz, dexente zaharragoak ginen infomatika eta ingelera ikasten hasi ginenean.

Ba al duzu lehenengo ikaskideetatik inor, bera irakasleekin ongi eramaten ez zelako, orain zure lanbidea onartzen ez dizuenik?

Esan dudan bezala, nik oso argi izan dut irakasle izan nuela eta nire ikaskideek ere argi izan dute beti. Badago baten bat, justua izatea eskatzen didanak.

Beraz, gaztaroko lagunekin ere ongi konpontzen zara. Zenbaterainoko tratua duzue?

Nire ikastolako lagunekin oso ondo konpontzen naiz oraindik eta urtero, batxilergoko afaria egiten dugu Lazkaoko festetan.

Poztekoa, oso. Mila esker, Ane, gure gremioan jarraitzea erabaki duzulako, eta guri kontatzeagatik.

En esta ocasión hemos querido acercarnos a unos cuantos jóvenes que no hace muchos años formaron parte de Jakintza como alumnos, y que en la actualidad continúan en nuestro colectivo bien como padres, bien como exalumnos. Todos ellos han querido expresar sus vivencias de aquella época desde el rincón de sus recuerdos.

Kepa Gaztañaga recuerda que por aquella época eran más de noventa alumnos en cada curso de EGB y valora la ayuda recibida para hacer la adecuada elección para sus posteriores estudios.

Ane Hernández, desde su actual profesión, remarca el cambio que ha observado en el aspecto de la informática y la tecnología.

Eneritz Zabaleta, un tanto nostálgica, reconoce la importancia de lo que ella considera la

adquisición de una cultura general que a su entender nos hace a todos más libres y autónomos.

Leire Arandia, que actualmente dirige el centro D'elikatuz, fue alumna de la primera promoción de BUP en nuestra ikastola y declara que muchos sentimientos de entonces le vinieron a la memoria en las celebraciones del cuarenta aniversario de Jakintza.

Miren Estensoro afirma que los amigos de aquellos años son los que perduran para siempre y que continúa manteniendo con todos ellos una excelente relación.

El más joven de todos nuestros exalumnos, **Xabier Araña**, manifiesta que todos los años pasados en la ikastola suponen un bagaje importante en su vida y que es innegable la trascendencia de aquella etapa.

Gurasoak gelan irakasle

Hezkuntza kalitateaz hainbeste hitz egiten den garai honetan, kontuan izan behar da irakaskuntzak aldaketa handiak behar dituela.

Ikastola ikas-komunitate bat da. Komunitate honetako agenteak ezberdinak dira: maila ezberdinetako ikasleak, gurasoak, irakasleak, eta gizarteko eragile guztiak. Lortu beharreko helburu nagusia ikuspegi dialogiko batetik planteatzen da. Garrantzi handia du hezkuntza osoaren solidaritateak. Gurasoen partaidetza ere ezinbestekoa da. **Ikuspegi** honetan oinarrituta LH2ko ikasleek eta irakasleek gelara eraman zuten bertako guraso bat komunikabide **inguruan zituzten kezkak argitzeko asmoz.**

Gaur egun ingeniaria teknikoa den Jakintza ikastolako ikasle ohia, Xabier Iturrioz, galderez josi zuten gure bikitxoek: mobilen funtzionamenduaren ingurukoak, FAX-ari buruzkoak, telebistan irudiak nola ikusten diren, etxeetako irratietara nola iristen diren soinuak ikastolan grabatu arren, internetak nola funtzionatzen duen... Galdere majo zailak egin zizkieten Xabierri, eta hau pazientzia guztiaz erantzunak ematen saiatu zen. Bikaina guraso honen lana! **Potto** irratian ere, aukera izan dugu elkarrizketa entzuteko.

Orain, gehiengo handi batek ingeniaria izan nahi omen du! Gogoratzearekin batera, argazki ugari atera genituen.



Uno de los retos a los que nos enfrentamos con los nuevos tiempos es la participación de todos los estamentos de la sociedad en las tareas educativas. Por todo ello, el ingeniero técnico Xabier Iturrioz compartió sus conocimientos tecnológicos sobre telefonía, radio, Internet... con todos los alumnos de 2º de Primaria. Sin duda resultó para ellos una bonita y entretenida experiencia.

HH-ko Jaialdi bikaina

Oporretarako hain gutxi falta den garai honetan, makina bat zalaparta ibili ditugu Haur Hezkuntzan. Zer dela eta? Galdetuko duzue. Bada... ilusio handiz, gurasoentzat egiten den jaialdia prestatzeko, behar genuen guztia antolatzen.

Alde batetik abestiak eta dantzak aukeratu; ondoren entsaioak egin, gero jantziak hautatu eta prestatu... e.a.

Hori dena lotu ondoren hau izan zen eskainitako egitaraua:

- 2 urtekoek, "Zapa zapa... zapata".
- 3 urtekoek, berriz "Alpargatak urratuta..."
- 4 urtekoek, "Leihotikan begira eta ingelerako saioa."

Eta bukatzeko 5 urtekoak zeuden. Hauek ekitaldiaren pisu handiena zeramaten. Aurkezpenaren lana beraien arduraren izan zelako eta saio bat baino gehiago eskaini zutelako. Hainbeste lana, eta entsaioaren ondoren iritsi zen emaitza jasotzeko ordua. Gurasoek gainezka genuen aretoa eta haien irrifarretan nabari zen aurretik egindako lanak merezi izan zuela. Haurren ilusioa eta poza ere ez zen gutxiagorako izan.

A punto de terminar el curso... y tampoco esta vez nos ha faltado actividad en Infantil. Muchos han sido los quebraderos



de cabeza que nos ha supuesto la elección de la coreografía y los ensayos para la fiesta de fin de curso. Pero después de todo el esfuerzo realizado el resultado fue una bonita y entretenida puesta en escena dedicada a todos vosotros. Todo ello quedó plasmado en las caras de satisfacción de padres y alumnos.

Kirola eta osasuna

Lehenago batean gure 5. mailako neska-mutilak oso ekitaldi interesgarrian hartu zuten parte. "Osasuntsu bizi kirola eginez" lelopean antolatu zuten ekitaldia.

Gureak trenez joan ziren, eta esan beharrik ez dago, horrek baduela bere xama eta abentura kutsua. Donostiara iritsi bezain laster, Kursale-rantz abiatu ziren. Han, Naroa Agirre eta Fernando Romay zain zeuzkaten beraien esperientziak azaltzeko eta ikasleen galderei erantzuteko.

Kirola egiteak gure osasunean duen garrantziaz jabetu ondoren, hau praktikan jartzea hondar-tzara joan ziren. Bertan, jolas ugari egin zituzten.



Pozik itzuli ziren etxera. Denek asmo bat zuten buruan: KIROLA EGITEA ETA OSASUNTSU BIZITZEA!!!

Los alumnos de 5º de Primaria han sido protagonistas de una bonita experiencia en el Kursaal de Donostia. Los conocidos deportistas Naroa Agirre y Fernando Romay les transmitieron sus experiencias en este campo e invitaron a todos ellos a poner en práctica sus conocimientos. Ya de vuelta a casa, no lo dudaban: ¡DEPORTE ES SALUD!

Agenda 21

Ikasturte honetan gure ikastetxeko ikasleek, herriko beste bi ikastetxeetakoekin batera, mugikortasunaren diagnostikoa egin eta landu dute.

Asko dira aurkitu dituzten arazoak, autoaren gehiegizko erabilera eta oinezkoek dituzten trabak, besteak beste.

Maiatzaren 5ean, Barrenako Kultur Etxean antolatutako "Eskolarteko Foroan", ikasle ordezkariak elkartu ziren arazoei irtenbidea aurkitzeko. Bertan, ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta Udalarari zuzendu beharreko proposamenak adostu ziren. Horrela, maiatzaren 12an egindako Udaltzarrean, alkate, hezkuntza-zinegotzi eta udaltzain-buruaren aurrean aurkeztu zituzten.

Hauek dira gure haur eta gazteek aurkeztutako konpromisoak eta proposamenak:

IKASLEEK HARTUTAKO KONPROMISOAK:

- Ahal dugun guztietan, ikastolara joan etorriak oinez egingo ditugu.

- Ahal den guztietan garraio publikoa erabiliko dugu.

- Oinezkoen bidetik arduraz ibiliko gara, eta zebrabideak gurutzatu aurretik arretaz bi aldeetara begiratuko dugu.

- Txirinduz ibiltzerakoan, kaskoa erabiliko dugu.

- Monopatinez ibiltzerakoan, arduraz jokatuko dugu.

- Trafiko arauak errespetatuko ditugu: oinez goazenean, oinezkoen bidetik joango gara; eta oinezkoen bidetik zeharkatuko dugu errepidea; txirinduz eta patinez goazenean oinezkoen pau-sora ibiliko gara espaloietan.

UDALARI EGINDAKO PROPOSAMENAK:

- Oinezkoentzat kale gehiago jarri eta espaloizabalagoak egitea.

- Udaltzainek ikastetxeko sarrera-irteerak zaintzea.



- Anexo inguruan zebrabide gehiago jarri eta orokorrean herrian daudenak ongi margotzea.

- Monopatinetetan jolasteko dagoen eremua zurratzea. Horretaz gain, CAF-eko skatepark berriaren proiektuaz informatzea.

- Garraio publikoa bultzatzea. Horretarako, saiatu prezioa jaisten eta ordutegia zabaltzen bidaiak lantokietako ordutegira (Ikastolako, Zumarragako ospitaleko eta lantokietako (Ikasto-la, Zumarragako ospitala...)) eta festetako ordutegira moldatuz. Bono edo txartel sistemak bultzatzea.

- Bidegorri eroso eta arriskurik gabekoa egitea eta bertan txirinduentzat aparkaleku egokiak egitea. Gainera, bere erabilera bultzatzeko ikasle eta langileen artean kanpaina egitea.

- Zarata aztertu ondoren, trenbide eta N-1ean panelak jartzea eta orokorrean herrian zarata arintzeko neurriak hartzea.

- Bigarren ilaran eta zebrabideetan aparkatzen dutenekin zorroztzagoak izatea.

- Udaletxeko web orrialdean kotxea konpartitzeko gune bat sortzea.

- Laburbilduz: garaia da autoa alde batera utzi eta oinez edo txirinduz mugitzeko, baita garraio

- Oporrak ongi pasa, eta haur zein gazteek proposatutako neurriei erreparatu.

Ikastolako Ingurumen Batzordea.

Dentro del proyecto Agenda 21 a lo largo de este curso se ha venido realizando en nuestra ikastola un análisis y diagnóstico sobre el tema de la movilidad urbana.

Por todo ello el pasado 12 de mayo los representantes de Jakintza tomaron parte en el "Foro Interescolar", para así llevar al ayuntamiento las propuestas y compromisos adquiridos conjuntamente con el resto de los centros educativos de Ordizia.

Allí tuvieron oportunidad de plantear a las auto-ridades locales distintas soluciones encaminadas a mejorar nuestra calidad de vida en el mencionado apartado.

Además del compromiso de minimizar el uso del automóvil y potenciar la utilización de otros medios de transporte, se trasladaron diferentes propuestas con el fin de impulsar la utilización de pasos de cebra, aceras, calles peatonales y carril de bicicletas.

Ikastolen Elkarte Berria

Ikastolen orainaz eta geroaz bi urte luzez eztabaidatu eta gogoeta sakona egin ondoren, ekainaren 13an sortu da Ikastolen Elkarte Berria. Aurrerantzean, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko ikastola guztiak erakunde bakar batean bilduko dira: Euskal Herriko Ikastolen Elkartean haiz zuzen ere.

Elkarte Berri horrek Europako Kooperatiba Elkartearen figura juridikoa izango du eta bere bazkide zuzenak izango dira Euskal Herriko ikastola guztiak. Ikastolek osatzen duten erakunde kolektiboa da Ikastolen Elkarte berria, eta bere helburuak dira: bere bazkideen hezkuntza-proiektu komuna, gartztea, ikastola bakoitzari bere berariazko hezkuntza-proiektua garatzen laguntzea, bere bazkideak talde moduan ordezkatztea eta hezkuntza euskalduna bere bazkideen esparrutik harago ere sustatzea.



Zalantzarik gabe aurrera pauso garrantzitsua izango da ikastolen talderako.

Tras un largo proceso, el pasado 13 de junio quedó constituida la nueva "Ikastolen Elkarte". En dicha estructura quedan incluidas todas las ikastolas de Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa e Iparralde, dándole a dicho ente un carácter jurídico estable y aglutinador a nivel europeo.

A partir de ahora nuestro colectivo contará con una común y única estructura encaminada a la consecución de unos objetivos que indudablemente beneficiarán a nuestro proyecto educativo; una buena noticia que nos hace más fuertes, si cabe.

Blogariak

Jakintza Ikastolako DBHO2ko ikasleak, euskaljakintzako kideak, lan politak egiten aritu dira ikasturtean zehar: elkarrizketa eta artikulua interesgarriak, komikiak... Horietako bat da jarraian irakur dezakezuen. **Iñaki Esnal** ikasleak bizipen berezia izan zuen **Pedro Subijana** sukaldari ospetsuarekin solasean aritu zenean, eta hona ekarri nahi izan dugu zuek ere irakur dezazuen. Ez dugu tarterik hemen osorik ipintzeko, baina bere osotasunean irakurri nahi izanez gero, ondorengo helbidean izango duzue horretarako aukera:

<http://www.euskaljakintza.com/2009/01/14/pedro-subijana-ezer-gabe-hasita-nire-jatetxea-egitea-lortu-dut/>

Azken urte hauetan, gizarteak aldaketa nabarmena ikusi du sukaldaritzan. Non aritzen zara gusturago, sukaldaritza tradizionalaren elaborazioan edo modemoarenean?

Ni sukaldaria naiz eta, ondorioz, sukaldari batek ez du zertan aukeratu bata edo bestearen artean. Gaur egungo egoeran bagaude, lehenago sukaldaritza bat egon delako da. Sukaldaritza tradizionalak akats eta onbideak dauzka, ez da urrea diardia egiten duen guztia. Asko disfrutatzen dut ohiko sukaldaritzaren elaborazioan eta, modu berean, asko gozatzen dut bietan aritzeko gaitasuna daukadala erakutsiz. Hala ere, bizitzea egokitu zaidan ueña bizi dut, ez naiz geratu abarketak erabiltzen genituen garai haietan.

Zalantza izpirik gabe sukaldaritzak zure bizitzan parte hartu duela eta hartzen duela esan genezake. Zer esanahi dauka zuretzat sukaldaritzak? Zure lana baino ez da, zaletasun bat edo bizitzeko modu bat?

Nire bizia da, berrogei urte baitaramatzat sukaldaritzan. Batxilerraren ikasketak amaitu ondoren hasi nintzen sukaldaritzaren munduan murgiltzen, garai horietan 17 urte nituela. Hasieran, ostalaritza eskolan ibili nintzen, eta geroago sukaldaritza munduan. Gaur arte. Eboluzionatzen, inoiz konformatu gabe, beti formula eta joera berriak aurkitu nahian. Baina, hori bai, beti sukaldaritzarekin, sukaldaritzarengatik eta sukaldaritzarako bizitzen. Hala ere, kontuan izan behar da hori handicapa izan daitekeela, bidean askotan gauza asko utzi ditzakegulako: familia, seme-alabak, lagunak eta beste zenbait ekintza.



Zure biografiari begirada bat botaz gero, Donostian jaio zinela eta Zarautz eta Madrilgo ostalari eskoletan hezi zinela esan genezake. Noiz konturatu zinen sukaldaritza benetan gustuko zenuela?

Sukaldaritzan etxean aritzen nintzen, lagunekin, nire "boy scout" taldearekin eskolan; dena den, inoiz ez zitzaidan burutik pasa hori lan bat izan zitekeenik, garai haietan ez baitzegoen sukaldari ospetsurik. Gazte garaian nota onak ateratzen nituen, ikasle arrunt batenak. Gainera, medikuntza ikasi behar nuen, baina ostalari eskoletan sartu nintzenean gehien nabarmentzen zena ni nintzela konturatu nintzen. Azkenean, gure promoziotik gehien gailendu zena ni izan nintzen. Adin horretan zaila bazen ere, ordurako banekien zer nahi nuen. Hortik aurrera, nire bizitza sukaldaritzaren inguruan igaro da.

Ostalari eskoletan klaseak jasotzeaz gainera, irakasle eran, sukaldaritza ikastaroak eman dituzu amerikar eta europar erakunde ezberdinetan, baita enpresa eta heziketa eskola espainiarretan ere. Ikasleak al dira prestatzen diren bakarrak edo irakasleak ere ikasten al du esperientzia honetatik?

Beti izan naiz oso borrokalaria heziketaren arloan. Prestakuntza oso garrantzitsua da. Norbait ikasle denean, ez du ikasi nahi, dirua lortu nahi du. Norbait denbora askoan lanean aritu bada, al-diz, ikasteko desira agertzen zaio, ikasteak duen baloreaz jabetuz. Ikasleak, ikasle den garaian, ikasi egiten du; eta irakasleak, nahitaez, ikasi egin beharra dauka, erantzukizun handia baitauka. Ondorioz, prestatu egin beharra dauka, bere lanak egin behar ditu klasearen aurretik. Gero, irakasten ari denean ere ikasi egiten du, askotan ikasleak arazo ugari jartzen baitizkiote irakasleari, eta horietatik irteten jakin egin behar da.

1975. urtea oso urte garrantzitsua izan zen zure ibilbide profesionalean, Akelarre Jatetxearen buru jarri baitzinen. Nola ematen dio batek aurpegia erronka honi? Zein beldur izan ditzake?

Edozein gaztek beldurrak ditu, baina batik bat irrika dauka, gauza asko irrikatzen ditu; halere, ez daki nola lortu bere nahiak. Dena den, garai horretan, beldurra baino gehiago beldur falta dauka; ez da jakitun 180 km/h-ko abiaduran errepidean ezbehar bat izan dezakeela, ez da heriotzaren beldur, ezta arriskuarena ere... Ni gazte arrunt bat nintzen, erlatiboki zuhurra, negozio bati aurre egiteko beldur. Gainera, jatetxe ho-netara etorri nintzenean, 1970. urtean, ez nuen lana onartu, artean nire curriculum osatu nahi bainuen. Nork esango zidan niri, behin Akelarrean lan eske etorri eta gero, honek guztiak nirea izaten amaituko zuenik? Ez etsitzeko esaten diet beti gazteei, azkar ez joateko, kasu horietan beti izaten baita zartakoa.

"Betik esan izan dut jatetxe baten arrakasta (edozein enpresarena) ekipo on bat dela." Ezaguna egingo zaizu esaldi hau, Akelarren webgunean azaltzen baita. Nola eratzen da talde on bat?

Ekipo bat sortzea oso zaila da. Gainera, talde bat egitearekin ez du esan nahi dena egin duzunik. Pertsonak maneiatzea edozein lokal edukitzea baino baliotsuagoa da. Koordinatzen eta antolatzen jakin behar da. Zenbait kasutan, pertsona horiek beraien ibilbide profesionalari hasiera eman nahi izaten diote eta nik beti lagundu izan diet erronka horretan. Horrez gain, laguntza ekonomiko eta morala eman dizkiet zenbait kasutan. Taldeari dagokionez, ekipoa bizirik dago eta etengabe aldatuz doa, eboluzionatuz.

Ha sido un curso de lo más productivo para los alumnos de 2º de bachillerato, para nuestros chicos y chicas de euskaljakintza, los cuales no han escatimado esfuerzos para llevar a cabo proyectos muy interesantes y colgarlos en su página web (www.euskaljakintza.com). Claro ejemplo de ello es la entrevista que **Iñaki Esnal** realizó al conocido cocinero vasco **Pedro**

Subijana en su restaurante Akelarre de Igeldo.

En ella además de hacer un recorrido exhaustivo a través de toda su trayectoria profesional (sus primeros pasos en el difícil mundo de la cocina, los reconocimientos recibidos, el esfuerzo de organizar un equipo...), se interesa por temas tan actuales como la anorexia.

2008-2009 Ikasurteko "OHOREZKO MATRIKULA" hizpide

Ikasturtez ikasturte, egindako lanaren eta lorturiko emaitzen harira, EHU-k "Ohorezko matrikula saria" eskaintzen du. Aurten, Jakintzan, ikasle bikainak izan ditugu. Eta horien artean, Jakintza ikastolan, **Ainhoa Mujikak** eskuratu du aipaturiko saria.



Hori dela eta, Ainhoarengana jo dugu eta, bertsoz berraztertzeko ere oso trebea denez, Jakintzan izan duen ibilbideaz bertso bidez mintzatzeko eskatu diogu. Hona, "Habanera" doinuaren abestekoa:

Lehenengo marrazkia,
lehenengo batuketa,
egin ditut Jakintzako
teiltatupean gordeta.
Azkeneko ahalegina,
azkeneko azterketa,
karrerari ekin baino
lehen iritsi zait meta.
Dena bukatu da hemen
16 urte beteta;
dena eman dit: lagunak,
jakintza zein heziketa,
matrikula soilik ez da
utzi nauena aseta,
hemen ikasi izana
ohore bat izan da eta!

Benetan hunkigarria! Norbaiten begiak malko iturri bihurtu dira. Beraz, Ainhoa, zorionak eta ikasi gogoz Euskal Filologia, euskarak behar zaitu eta. Zorte on!

Ainhoa Mujika ha sido, este año académico, la alumna que han obtenido las mejores calificaciones de Bachillerato y con ello se ha hecho acreedora a la **mátrícula de honor** que otorga la UPV.

Esta vez ha sido ella misma quien nos ha ofrecido sus impresiones en un delicioso bertsu a ritmo de habanera.

Expresa los sentimientos que le abordan al final de este ciclo académico, haciendo hincapié en que no es la **mátrícula** su único motivo de satisfacción.

"Es un honor, dice, el haber estudiado aquí".

Euskadiko Txapeldunak

Maiatzaren 30ean Gasteizen ospatutako XXVIII. Euskadiko Eskolarteko Jokoetan, gure ikastolako mutil infantilak Atletismoko taldeko txapeldunak suertatu ziren. Bigarren postuan Ordiziako Ojanguren institutua gelditu zen.

Ordiziako ordezkari guztiei gure zorionik beroenak luzatu nahi dizkiegu eginiako erakustaldi zoragari horrengatik eta, arerioak izan arren, erakutsitako adiskidetasuna eta kiroltasunarengatik.

Gainera, gure ikastolako hiru neskek Gipuzkoako selekzioarekin parte hartu, eta hirurak Euskadiko Tituluarekin itzuli Ordiziara. Itzela, benetan!!

Horra hor gure ordezkariak lorturiko emaitzak:

Neska Infantilak:

MARIA ACOSTA URKIZO Txapelduna 3000 metroko frogan 11.04.49 denbora bikainarekin.

ALBA TORRES ARRUABARRENA Txapelduna Pisu jaurtiketan 8,70 metroko markarekin.

SARA COBOS DE JUAN Txapelduna 3 Km martxan 19.18.61 denbora bikaina lortuz.

Mutil Infantilak:

JAVIER VALDMIELSO 80 metroko frogan hirugarrena 10.37 denbora eginez.

IKER NIETO 500 metroko frogan Txapelduna 1.14.43 denbora eginez.

MARKEL SAMANIEGO DE JUAN 1000 metroko frogan hirugarrena 3.07.82 denborarekin.

JOSU AGIRRE 80 metro hesiak frogan laugarrena 16.50 denbora lortuz.

MATTIN KORTA Altueran bigarrena 1,50 jauziarekin.

BEÑAT AZURMENDI Luzeran bostgarrena 4,77 metroko jauzia eginez.

MIKEL BEKUONA Pisuaz zortigarrena 8,67 metroko jaurtiketarekin.

JAKINTZA IKASTOLA 4x80 erreleboetan Txapelduna 40.72 denborarekin.

Zorionak guztioi!!!

IKASTOLAREN EGUNA

Jakintza Ikastolaren eguna: guraso, ikasle, irakasle, gu guztion eguna ospatu genuen lehengo ekainaren 6an.

Denetik izan genuen: pailazoak, jolasak, herri kirolak... ez zen ezer falta izan. Guztiok, ahalegindu ginen gure aletxoak uzten. Gure ohiturei eutsiz, mahaiaren bueltan eman genion amaiera festari. Ederra benetan!

Baina ederrena, Jakintza sendia osatzen dugun guztiok elkartzea izan zen. Batzuekin, aspaldi elkar ikusi gabeko lagun zaharren moduan, besarkadak emanez eta bostekoa luzatuz; beste batzuekin, eguneroko diosala, irribarre, iepa xume bat.

Besarkada, bosteko, keinu, irribarre horien guztien artean, arnasten zen halako konplizitate haize gozo bat. Ondo konpontzen diren sendietan sumatu ohi dena.

Zorionak Jakintza sendiari eta urte askoan horrelaxe jarraitzeko moduan izan gaitzela.



El pasado día 6 de junio Jakintza Ikastola celebró su fiesta anual y en ella no faltaron emotivos momentos en las diferentes actividades que se fueron sucediendo. Los payasos, juegos y deporte rural dieron paso a

animadas conversaciones en torno a la mesa.

Sólo queda citarnos para, como venimos haciendo los últimos años, el próximo curso. Nadie faltará y... ¡hasta entonces!



1982. urtean jaiotakoak Xabier irakaslearekin, Peñiscolan, kurtso bukaerako bidaiari

Altamira auzoa z/g
tfno. 943 16 05 40
faxes. 943 16 07 90
20240 ORDIZIA
ordizia@ikastola.net

